



# GEHIGARRI BEREZIA

## Saritutako lanak

### Ipuinak

1. saria: Ordu laurdena. *Iñaki Iturain*
2. saria: Orio, 789 kilometro Santiagora. *Jon Agirresarobe*

### Olerkiak / Bertsoak

1. saria: (H)aginako festak. *Jon Agirresarobe*
2. saria: Oria erreka/ibaia/errioaren bidaia. *Iñaki Iturain*
3. saria: Indonesiara bidaia. *Jokin Zumeta*

Accesita: Noiz arte. *Alazne Arruti*

Accesita: Alai eta lasai. *Marisa Arruabarrena*

# Ordu laurdena

*Iñaki Iturain*

Gizona San Antonio itsasontziaren brankan dator, ukondoak aurrealdeko karelean tinkotuta, pentsakor. Baporea Donibane Lohitzunetik itsasoratu da, eta herrian lehorreratuko. Bi urte eman ditu han. Orain dela astebete erabaki zuen ostera etxeratzea.

Anarri parean daude oraintxe bertan, dagoeneko begi-bistan dute Orioko barra. Bihotza azkar dabilkio Joxe Mariri, bihotz-taupadak bizkor sumatzen ditu bularrean; burua are bizkorrago. Anarritik gora, labar bertikal izugarriaren gainean, Itxaspe baserria ikusi du. Trumilka etorri zaizkio oroitzapenak. Han hitz egin zuen lehenengo aldiz orain herrian alkate dagoenarekin, Roberto Varaonarekin.

Adin batekoak dira biak: Roberto eta Joxe Mari. 45 behar ditu Robertok, berak bezala 1936an 13 zituen-eta. Irailaren 18an izan zen, 36ko gerra zibila hasi zenetik justu bi hilabete bete ziren egunean: herriko zubia dinamitaz bota behar zutela-eta, leherketaren bezperan Itxaspe eraman zituzten herriatik, han seguru egongo zirelakoan. Baserrian nahikoa tokirik ez denentzat eta handik 300 bat metrora labarraren ertzean arroka artean dagoen harkaizpe batean jarri zituzten lotarako. Gaua elkarren ondoan pasatu zuten bi mutil koskorrek, han zabalduko geroaren gainean etzanda.

Gogoan du uda bero haren bukaera hartan ez zuela hotzik egiten, baina goizaldean hozkirria sentitu eta esnatu egin zela. Esna sumatu zuen bere ondoan Roberto. Honek, Joxe Mariren hotza antzemandak, biok estaltzeko moduan zabaldu zuen tapakia. Goizean, baserriko mutil koskorra etorri zitzaien; harkaizpearen sarreraren ondoan jarri eta eskuan zekarren zintzarria astintzen hasi zen. Jaikitzeo ordua. Zeruan eguzkia orduan altxatzen ari zen, Donostia aldetik. Tapakiak-eta alde batean utzi eta kanpora atera ziren. Ikuskizuna aparta zen. Itsasoa aurrez aurre, bere zabaltasun osoan. Ordura arte ez zuen sekula ikusi itsasoa lehoretik horren goiz eta txundituta geratu zen, Getaria aldera begira, zekusanarekin. Lehen eguzki-errainuek dotore janzten zuten euskal kostaldea, eta itsasoa bare zen, herriko giroa ez bezala. Itsasoari so zegoela, Luis Itxaspeko

mutil gazteak esan zien gosaria prest zela baserrian eta harantz abiatzeko.

Itxaspen zurrumbilo handia zegoen. Goiz hartan errio gaineko zubia botatzekotan ziren Asturias aldetik etorritako ezkerreko miliziarak. Bezperan goizean pasa zuten abisua herrian, kalez kale, kamioneta batetik eta bozgorailu baten bidez, biharamunean zubia botako zutela dinamitaz eta herriatik aldegitako, ez geratzeko inor bertan. Arratsalde hartan bertan, jendea joaten hasi zen, iluntzerako ez zen inor geratzen, herria kanposantu bihurtuta. Batzuk Aginaga aldera joan ziren, gutxien urrundutakoak herriko baserrietan babestu ziren, kanposantutik gorakoetan: Aldape, Etxeberri, Katxiña, Andu, Benta, Itxaspe...

Itxaspeko etxeoandreak eltzekada handi batean baratxuri zopa atera zuen baserriaren kanpoaldean inprobisatua zuten mahai handi baten gainera, gazta puska bat bezperako ogiarekin eta pitxar batean sagardoa. Haur batzuk ere baziren Oriotik joandako koadrila handi hartan eta haiei esne beroa atera zien txarro batean. Gizonak zutik aritu ziren, katilutik gosaltzen. Urduritasun handia zen haien artean. Batetik, ez zekiten seguru noiz botatzekoak ziren zubia; bestetik, bezperan entzuna zuten irratian, Herreroneko balkoian herritarrek beheko plazatxotik entzuteko jartzen zuten irratic, Mendizorrotzen borrokan ari zirela hura defendatzera joandako gudariak eta ezkertiarak, Igeldo aldetik zetozen faxistei aurre eginez. Huraxe zuten faxistek gainditu beharreko azken trintxera, Oriora iristeko.

Bazekiten seguru zubia lehertzeko jarritako dinamitaren danbatekoa aisa entzungo zutela Itxaspetik. Han sortua zen gizonezkoen aginte-batzordeak erabakia zuen leherketa entzun eta ordubetera herrira itzultzea Itxaspen zeuden guztiak.

Joxe Mari adi-adi egon zitzaien gizonei albotik disimuluan. Hori entzunda, ideia bat izan zuen gauean manta zabaldua berarekin horren adeitsu izandako Robertorekin nolabait zorra kitatzeko: Anarrira eramango zuen goiz pasa. Joxe Mari ez zen inoiz izan bertan, itsasotik askotan ikusi zuen,

aitarekin motorrean arrain txikitara ateratzen zirenean, gehienetan Anarriren ondo-ondotik pasatzen ziren, eta beti izan zuen gogoia egun batean bertara joateko. Huraxe zen momentua. Robertorengana joan aurretik, Luisi galdetu zion, baserriko mutil koskorrari:

–Hi, Luis, hik ondo ezagutuko dituk hemengo bazterrak, ba al dago biderik Anarriraino jaisteko?

Gailegoen legez, galderarekin erantzun zion baserriarrak:

–Anarrira joan nahi al dek? Goazen, nik eramango haut.

Lusek ia etxea bezain ondo ezagutzen zuen haien baserriak behera jaitsita lehorretik itsasora irteten zuen arroka; leku ona zen lanpernetarako eta, aitarekin edo osabarekin, askotan izana zen bertan. Luis, gainera, harrotu egin zen, kalekume hark egindako eskaerarekin, lehenengo aldiz berak eramango zuen norbait Anarrira.

–Luis, Robertori ere esan behar zioagu, ea etorri nahi duen.

Joxe Marik baserriatik pixka bat baztertuta hizketan ikusi zituen aita- semeak. Haiei begiratu, Robertori keinu egin zion, etortzeko. Robertok, pixka batera, aita utzita, bi mutilengana jo zuen:

–Zer nahi duzue?

–Roberto, jaitsi nahi al dezu gurekin hor beheko arroketa? Hemen bestela aspertu egingo gera, seguru asko arratsaldera arte ez gera-eta etxera joango.

Robertori irribarrea zabaldu zitzaion segituan musuan.

–Aitari esan behar diot, itxoin pixka batean.

Korrika abiatu zen gizon trajeatuarengana. Berehala zen bueltan, baimena eskuratuta. Joxe Marik ere bitarte hori ama-izebei esateko erabili zuen:

–Ama, Anarrira jaitsiko gera, baserriko Lusek lagunduko digu, baserriko nagusiaren semeak, hark ondo ezagutzen du bidea, eta Andres Varaonaren semea ere gurekin dator, hemen izango gera bazkal ordurako.

Arreba txikiari titia ematen ari zitzaion amak ezer esaterako, Joxe Marik buelta hartu eta ordurako elkarren ondoan ziren Luis eta Robertorekin elkartzera egin zuen.

Sigi-saga jaisten zen bidetxiorra, nahiz tarte batzuetan sasiak hartua egon. Hogei minutura behean ziren, Anarriko arroka aurrez aurre zituztela. Beti

ez zen posible izaten, baina aldi hartan suerte oneko zeuden, irail bukaerako marea biziak ziren eta itsas behera zen ostiral goiz hartan, lehorretik Anarriko arroketa bitartean zegoen ur tarte oso estua zen, salto handi batekin gaintzeko modukoa. Baina tokia eta egoera ez ziren salto handitan arriskatzen hasteko modukoak. Lusek ohol bat atera zuen arroka artean zegoen zulutik. Ohola zabalduta, lotuta gelditu ziren lehor alde eta Anarriko irlatxo. Baserriarraren oholak zubi-lana egingo zien Roberto eta Joxe Mari lagun berriei.

–Nik baserrira bueltatu behar det, han lan handia dago, eta aita haserretu egingo zait ez banaiz han segituan agertzen. Zuek geratu, bueltatzen zeratenean, ohola utzi bere tokian.

Berehala ekin zion Lusek aldapari, bertakoek duten lurraren ezagutzak ematen duen segurtasuna erakutsiz pauso bakoitzean.

Herriko bi mutilak berehala ziren Anarrin. Joxe Marik bere jakinduria erakutsi nahi izan zion bera baino kalekumeago zen Robertori:

–Olagarroetarako da ona toki hau, pila bat egoten da.

Hango arroketa zuloetan olagarro bila bezala ibili ziren pixka batean; gero, erdi etzanda jarri ziren arroka zapal handi batean, eguzki goxotan itsaso zabalarri begira. Berriketan hasi ziren, luze hitz egin zuten. Egun hartan jakin zuen Joxe Marik, Valladoliden jaioak zirela Robertoren gurasoak. Aita notarioa zuen. Honek despatxua zuen Donostian, baina bizitzeko herri txiki bat egokiagoa zela bere seme-alabentzat eta horrek ekarri zituen Oriaino. Herrian bizi zen Roberto, baina Joxe Marik ez zuen apenas ezagutzen, eskolan beti herritik kanpora ibilia zen. Orain Donostiako Jesuitetan ari zen ikasten. Erdaraz esan zizkion kontu gehienak Robertok, halako batean, honela aitortuta:

–Euskeraz kostatu egiten zait, etxean ez dugu egiten eta askoz errazago ateratzen zait erderaz.

Robertok ere asko ikasi zuen Joxe Marirena:

–Datorren urtean itsasoan hasiko naiz, txotxo, San Luisen, aitaren lehengusu batena da baporea, eta 14 urte betetzearekin batera hasiko naiz. Deseatzen nago.

Aitaren aipamena entzunda gogoratu zen Roberto Joxe Mariren aita ez zegoela Itxaspen. Haren galdera eginda, segitu zuen Joxe Marik:

–Frantzian dago, San Juan de Luzen, igandean alde egin zuen, jende asko joan zen Oriotik baporean. Ez al zeunden han moilatik abiatu zirenean? Ia herri guztia han ginan eta!

Robertok ezetz. Joxe Mariri iruditu zitzaion bi mundu desberdinekoak zirela herri berean bizi arren.

–Soldaduak laster sartzekoak dira, eta haien beldur joan dira, ihesi.

–Eta zergatik joan da ba? Zer egingo diote ba soldaduek? Zer egin du zuen aitak, zeren beldur da?

–Nire aitak ez du ezer txarrik egin! –zakar samar erantzun zion Jose Marik, galderek haserretuta.

Joxe Mariren bat-bateko erantzunaren tonu altu eta indartsuak adoretu zuen Roberto ere, bestela seguru asko kontatuko ez zuena azaltzera.

–Hara, zuen aita zintzoa izango da, seguru baietz, baina halaxe zen nire anaia ere, eta hil egin dute.

Robertoren hitzek inpaktu handia eragin zuten aitaren ihesaldia kontatzen hasita asaldatuta zegoen Joxe Mariren baitan. Dardarka atera zitzaion galdera:

–Zure anaia hil egin dute? Zeinek? Zergatik?

–Donostiako kartzelan hil zuten orain dela hamabost egun. Etxetik atera zuten, lepoan zapi gorri eta beltza zuten gizonak, pistola eskuan. Etxea hankaz gora jarri zuten, bere logelan topatu zuten nire anaia Jose Mari. Hara, zure izen bera zeukan nire anaiak... –emozioak gainezka egin zion eta, bere hitzak etenda, isilune luze samarra gertatu zen. Olatua arroken kontra lehertzean sortzen zen hotsa besterik ez zen entzuten-. Etxetik joan zirenean, leihora atera nintzen korrika, horrela ikusi nuen nola atera zuten bultzaka etxeko ataritik; eskuak burdinez lotuta zeramaten, zubi ondoan zegoen kamioneta batera igoarazi zuten, fusil baten kulatarekin bizkarrean jota. Kamioneta hartan ikusi nuen azkenekoz anaia, etxera begira zegoela galdu nuen bistatik Dike aldean. Handik bi egunera jakin genuen Donostiako hondartzaren ondoan dagoen kartzelatik atera eta fusilatuta zutela, beste 11 gizonekin batera. Hogeita urte zituen. Zure aita laster etortzekoak diren soldaduen beldur joan zela esan didazu, ba, hara, gure aita soldadu horien zain dago, irrikatan, haiek noiz ailegatuko.

Azken hitz hori esatearekin batera, iritsi zitzaion burrunbara. Ikaragarria izan zen. Anarriko arrokak ere mugitu egin ziren. Roberto ia uretara erori zen, hartu zuen sustoarekin. Jose Marik ekarri zion gogora:

–Zubia lehertu dute. –Robertoren aurpegian garbi ikusi zuen izua. Haren aurpegiko beldurrak samurtuta, harengana hurbildu eta besarkatu egin zuen, eta bi besoen artean estutu. Hantxe egon ziren, olatu bat arrokaren kontra lehertzeak Jose Mari errealitatera ekarri zuen arte-. Gora joan beharko degu, bestela kezkatu egingo dira.

Lehorreko arroketa pasatu ziren, Luisen oholaren gainetik. Zubia artean tente zegoen. Egur puska hura bere lekuan ezkutatuta, gorako aldapari ekin zioten. Beherakoan baino gertuago zeuden bi mutilak, beherakoan ia ez zuten elkar ezagutzen, orain Jose Marik adiskide sentitu zuen bi aste lehenago anaia galdu zuen oriotar kastellanoa, nahiz eta ordurako ulertzen hasita ere bazegoen gerra madarikatu hartan bando banatakoak zirela biak.

\*\*\*

Hogeita hamabi urte pasatu dira egun hartatik. 1968an gaude. Jose Mari San Antonio baporean bueltan dator jaioterrira Donibane Lohitzuneko erbestetik. Anarri parean pasatu direnean, itsasotik han goian Itxaspe baserria ikusi duenean, etorri zaio gogora bere adin bereko Roberto Varaona ezagutu zueneko, Anarriko arroketa elkarri beren barrua askatu zioteneko. Orain herriko alkatea da Roberto, eta bera bueltan dator atzerrian bi urte pasatuta, sasia. Gustura esango lioke Robertori bere aita ere hil egin zutela. Zubia lehertu zuten egun berean falangistak eta erreketek herrian sartu eta handik hiru astera etorri zela aita herrira Lohitzunetik, bera orain zetorren herri beretik. Ezertxo ere egingo ez ziotelakoan bueltatu zela 1936ko urri madarikatu hartan. Zergatik egingo zioten ba ezer, berak ez zion-eta inori ezer txarrik egin. Gustura esango lioke etxera bueltatu eta hurrengo gauean etorri zitzaizkiola bila etxera Zarauzko falangista batzuk. Esango lioke falangistek berek ez zutela barrabilik izan bere bila joateko eta herriko aguazila bidali zutela, haiek zain erriaren beste aldean geratuta, estazio ondoan. Gustura esango lioke kanposantura eramane eta han akabatu zutela, zakur bat bezala. Amorruez ari zen pentsatzen hura dena, Robertoren aita falangista zela gogoan zuela.

Baporearen bat-bateko mugimendu zakar batek ekarri zuen orainera. Barkua maniobra egiten hasita zegoen barran sartzeko. Ez zegoen erraza. Itsasbehera zen eta itsaso handi samarra zegoen, nahasia. Patroiak

gelditu egin zuen baporea. Kanpoan geratu zen, zalantzan, olatuen lagaldiaren zain.

Baporeko patroiak bezala, zalantza zeukan Jose Marik ere. Ez zekien seguru ondo ari ote zen herrira bueltatzearekin. Bi urte lehenago herritik alde egin zueneko eta etorri zitzaion gogora. Mendibeltz mendian ikurrina jartzen harrapatu zuten beste lagun batekin batera. Guardia zibilak zeuden ezkutatuta mendian sasi batzuen artean. Ez zeukan zalantzarik txibato baten lana izan zela hura. Kuartelera eraman zuten. Han astindu ederra jaso zuen, izugarria. Kuarteletik atera orduko erabaki zuen ihes egitea, 30 urte lehenago bere aitak bezala. Halaxe egin zuen. Aita bezalaxe joan zen, baporez, San Antonio arrantzontzian, justu abiatu aurretik amari eta arrebari agur esanda.

Bi urte pasatu ziren geroztik. Gauza asko bere bizitzan. Tarteka arrantzan ibili zen, sos batzuk ateratzeko. Giro politikoa nahasi samarra antzeman zuen. Bera bezala, gazte euskaldun asko ari zen Iparraldera iristen Hegoaldetik. Iruditzen zitzaion laster lehertuko zen beste gerra baten atarian zeudela.

Baporea mugitzen hasi zen, motorra bere indar guztian jarri zuen patroiak. Barealdia zen, olatuaren lagaldia eta baporea barran murgildu zen. Mendiaren magalean harrizko bitrina batean sartuta dagoen Karmengo Ama Birjinaren aurretik pasatzean, aitaren egiten ikusi zituen arrantzaleak. Erritual bat zen, Ama Birjinari laguntza erregutzeko modu bat, han itotakoen zerrenda beltza beren izenekin ez handitzeko eskaera.

Toki arriskutsua zen hura, olatu handi bat barran sartzen baldin bazen, baporea arroken kontra eraman zezakeelako. Horrelaxe gertatuak ziren hainbat istripu lehen ere, horrela ito zen hainbat arrantzale leku hartan.

Onikigaro zuten barra. Oribazarreko hondartzaren parean zeuden. Ia etxean. Hondartza hartatik hurre dagoen baserriko mutilarena etorri zitzaion gogora, Joakin Marirena. Orain hilabete topatu zuen Donibaneko portuan. Ilusio handiarekin ikusi zuen. Prest zegoen borrokarako, dena emateko. Huraxe omen zen momentua diktadorea botatzeko, Euskadi askatzeko. Justu hilabete lehenago gertatu ziren Pariseko kaleetan ere, gerora historiara `Pariseko 68ko maiatzekoak´ izenarekin pasatu direnak, eta Euskal Herrian ere egoera bor-bor zegoen gazteen

artean.

Biak herri berekoak izanda, elkarrekin bazkaltzera joan ziren. Joakin Mari etorri berria zen Iparraldera Oriotik eta haren bidez gauza asko jakin zituen jaioterriko egoeraz. Alkate berria zegoela, urte askoan herritik kanpora ibilita herrira bueltatu berria omen zen abokatu bat, abizena Varaona edo horrelako zerbaite zeukana, haren aita zena bezala falangista hutsa omen zena. Jakin zuen abuztuko egun batean estropada izatekoa zela herrian, eta Oxford-eko arraunlari ingelesak etortzekoak zirela eta jende guztia aztoratuta zebilela. Haren hitzetan, herri alienatua zen gurea, errepresiorik handienaren pean egonagatik estropada batengatik sekulako ospakizunak egiten zituen.

Ez zen gehiegi harritu Joakin Mariren ahotik entzun zituen hitz gogorrenatik. Bazekien berak ere gogorrak jasan behar izan zituela, sekulako jipoia eman ziotela Donostiako komisarian, entzuna zuen Perales izeneko komisario krudel eta gupidagabe baten eskuetan egon zela eta sekulako torturak egin zizkiotela. Lau egun eduki zuten atxilotuta, bizirik den artean sekula ahaztuko ez dituen lau egun. Eta bazekien tortura horiek ez dutela uzten arrastoa gorputzean bakarrik, arrastorik handiena ez dutela gorputzean uzten hain zuzen. Jasandako torturek Joakin Mariren gorputz-gogoetan nola, holaxe utzi zuen egun hartako elkarrizketak ubera Jose Mariren sentimenduetan, sakona.

Ondoko egunetan ezin izan zituen Joakin Mariri entzundakoak burutik kendu. Sentimendu kontrajarriak eragin zizkioten. Herriko mutilari egindako basakeriek berari ere egindakoak ekartzen zizkioten gogora eta, haiek gogoan, berak ere pistola hartu eta borrokarako bultzakada sentitzen zuen bihotzean, torturatzaile hura akabatzeko, frankismoaren bukaera ekar zezakeen borrokan aletxo bat jartzekoa. Baina barrenean zerbaitek esaten zion bide hark ez zuela irteera onik, gauzak okerrera eramango zituela.

Joakin Marirekin bazkaldu zuenetik bost egunera, haren telefono-deia jaso zuen, elkartu egin behar zutela. Bilera biharamunean egin zuten, ilunduta, baserri batean, Lohitzunetik kilometro batzuetara. Joakin Marik eraman zuen bertaraino automobilean. Donibaneko kaleak atzean utzi zituztenean, Jose Marik zapi bat jarri behar izan zuen begiak estaltzeko, lagunak eskatuta; hobe zen denentzat, badaezpada,

Jose Marik ez jakitea baserri hartarako bidea.

Bat-batean apurtu zuen lehenengo minutuetako isiltasuna Joakin Mariren galderak

–Irrikatan egongo haiz hire aitaren mendekua hartzeko, ezta?

Bat-batean eta ustekabean iritsi zitzaion Jose Mariri, ez zuen horrelakorik espero eta kostatu egin zitzaion erreakzionatzea.

–Gure aitaren hiltzaileak hilda zeudek denak.

–Bai, baina haiek segitzen ditek agintzen, zuen aitaren hiltzaileen lagunek. Zerbait egin beharra zegok, horrela ezin diagu segitu, hortzak erakutsi behar zizkieagu; bestela faxista putakume horiek jan egingo gaitiztek.

Jose Marik ez zekien seguru zertara zihoazen gau-bilera hartara, baina tankera hartzen hasi zitzaion, Joakin Mariren hitzek eramane zuten susmoa izatera ekintza gogorren bat proposatuko ziotela.

Baserrian hirukote bat zuten zain, bi gizonezko eta emakume bat. Hirurek ere nahikoa estalia zuten aurpegia, ez ezagutzeko moduan. Plan bat proposatzeko zen bilera, ekintza bat. Planaren xehetasunak entzun ahala, harriduratik urduritasunera eta urduritasunetik espantura igaro zen Jose Mari. Lau egun lehenago Joakin Marik aipatutako estropada ekarri zuten hizpidera. Jakin zuten polizia torturatzailer hura estropada ikustera joatekoa zela, gobernadore militarren laguna zen eta harekin batera joango zen. Plana polizia akabatzea zen, tiroz hiltzea. Joakin Mariri laguntzea eskatu zioten Jose Mariri. Hogeita hamabi urte lehenago, hamahiru urte zituela, bere aita Getariako kanposantuan tiroz hil zutenekoa gogoratu zitzaion. Baina, harekin batera, Anarriko arroka zapal hartan Robertoren ahotik entzundako haren anaia Jose Mariren Ondarretako hilketa ere etorri zitzaion gogora. Zorabio baten modukoa sentitu zuen, oroitzapen, ideia eta sentimenduen zurrunbiloa. Burua eta bihotza ez zitzaizkion alde berean jarri, gogoak eta asmoak ere ez.

–Ekintza horrek ezin du ezer onik ekarri eta, edozein kasutan, nik ez daukat barrenik hori egiteko.

Burura zetozkion, behin eta berriz, egun gutxi lehenago poeta bati irakurritako hitzak: “inork ez dezala sekula, etorkizuneko paradisu jardine baten esperantzan, bide bazterreko lorerik ziztrinena ere zapaldu”.

Handik gutxira bukatu zen topaketa. Esan zioten

bere parte hartzerik gabe ezinezkoa zela ekintza hura burutzeko eta beste nonbaiten saiaturako zutela. Mahaiaren atzealdean tente zeukaten ikurrina esku artean jarrita eskatu zioten Jose Mariri zin egiteko baserri hartan ikusitako edo entzundako ezeren berri ez zuela inon inoiz emango. Halaxe egin zuen Jose Marik.

Baserritik Lohitzunera jaitsita, etxeratu eta oheratu egin zen, baina gau hartan ez zuen lorik egin. Goizean, itsasaldera jo zuen, Lohitzunetik Bidartera bidean dagoen Anarriren antzeko arrokarate batera. Han ez zuen zubirik behar izan justu itsaso gainean zegoen arroka zapalenera iristeko, baina haren gainean erdi etzanda jarrita, Anarrin Robertorekin izandako egonalditxo hartaz gogoratu zen. Konturatu zen 1936ko irailaren 18ko goiz hartan oriotar kastellano harekin, falangista baten semearekin, izandako elkarriketak ubera utzi ziola bere baitan. Hantxe erabaki zuen: erbesteko bidea utzi eta herrira bueltatuko zen.

Bidarteko arrokarate hartatik hasitako atzera buelta burutzeko azken pausoa ematekotan zen. Oribarzarreko hondartzaren parean, bost minutura moilan izango ziren. Ababorrera begiratu zuen, ezkerrean, plaia txikia ikusi zuen, arroken gainean kaseta ikusi zuen, karabineroena, orain guardia zibilek erabiltzen dutena. Alde batean, Oribarzarreko Joakin Marirenak eta beste aldean, aurrez aurre, guardia zibilenak. Eta bera bapora batean, bien tartean, erdian. Horixe pentsatu zuen, eta aitari askotan entzundako hitzak etorri zitzaizkion gogora: “Muturrak beti dituk txarrak, tartean ibiltzea deko onena”. Eta pentsatu zuen bere barreneko: “Bai, ezertarako balio izan zizun zuri erdian ibiltzeak”. San Antonio bapora aurrera zihoan, eta atzean utzi zituen Oribarzar eta guardia zibilen kaseta. Arrantzontzia maniobra egiten ari zen Orioko moilan, bapora moilaren kontra jarri eta txikota lotzeko.

Jose Marik esana zien San Antonio bapora eskifaiko lagun guztiei egun batzuetan inori ez esateko ezer haren berri. Egundak behar zituen bere egoera aseguratzeko. Alkatearekin hitz egin behar zuen, Roberto Varaonarekin. Gogoratuko ote zen 1936ko irailaren 18ko goiz hartakoaz? Susmoa zuen haren bitartekotza nahikoa izango zela poliziek bakean utzi zezaten. Alkatearengana iristeko, Itsaspe baserriko mutila zuen bidelagun onena, Anarrira jaitsi zirenean bezala. Luis, orain Itsaspe baserriko

nagusia, gauzaina zen, serenoa. Horixe zuen lanbide, baserriak justu samar ematen zuenaren osagarri, alkate berriak horrela eskatuta. Luis izango zuen, orduan bezala, zubi.

Herrira iritsi eta ama eta arreba agurtu eta bere burua pixka bat kokatu zuenean, Itxaspera jo zuen, hondartzatik gora dagoen bide basatitik barrena. Ordubete behar izan zuen hara iristen. Ordubete, 13 urte zitueneko goiz hartakoak gogoratzen. Behar-bada, gaur ere baratxuri zopa probatzeko aukera izango zuen. Zopa haren gustu onaren oroitzapena dastatu zuen eta hark aldarte ona eragin zion gorputz osoan. Bizkortu egin zuen ibilera.

Ondo joan zen Itxaspeko buelta. Luisek besarkada handi batekin hartu zuen, "Aspaldiko, bizi al haiz?" esanez. Baratxuri zopa ez, baina sagardoa galanki edan zuten, huntaz eta hartaz ari zirela.

–Hi joan hadi lasai alkatearenera, hark ondo hartuko hau, eta guardia zibilekin ez dek arazorik izango, hark bere eskuetan dagoen guztia egingo dik hire alde.

Luisen arreba Marilenak atera zien sagardoa, Itxaspeko alaba gazteenak, bakailao-tortillarekin batera, aurpegian irribarre zabala zuela. Neska bizia iruditu zitzaion Jose Mariri, xaloa, polita eta atsegina. Marilenaren ile gorrixkak eta haren begi berdeek txundituta utzi zuten Jose Mari. Luisekin hitz egin beharrekoak hitz eginda eta aspaldiko partez bere zentzumen guztiak bapo aseta, baserritik abiatzera zihoanean, ateko maratilan zintzilik lehen neskaren lepoan kiribilduta zegoen zapia ikusi zuen, eta birritan pentsatu gabe, patrikan gordeta eraman zuen.

Pozik jaitzi zen Itxaspetik herrira, 36an bezalaxe. Horrelaxe ikusi zuen herria ondorengo egunetan, pozik. Jendea euforiko ikusten zuen. Igande hartan zen jokatzekoa estropada, herriko mutilak Oxfordekoen kontra jarriko zituen, eta herriko arraun zaleentzat orduan ingeles haiek munduko onenak ziren. Hala zioten behintzat arraun klub sortu berriko arduradunek. Jende asko zebilen lanean igandekoa prestatzen. Lagun bati entzuna zion 'la regata del siglo' izango zela jaiko estropada. Telebisioak ere eman behar omen zuen kirol lehia; egunkarietan egunero azaltzen zen Orioko konturen bat edo beste; kartelak ikus zitezkeen nonahi: 'Regata Internacional: Oxford-Orio, 25 de agosto de 1968'.

Telefonoz deitu zuen udaletxera, alkatearekin hitz egin nahi zuela. Bera zein zen-eta azalduta, bi egunerako eman zioten hitzordua. Urduri joan zen udaletxera; 32 urte lehenago Itxaspen ezagutu eta lagun egin zuen mutil gazte harengana zihoan, batzuentzat falangista putakume hutsa besterik ez zen herriko alkatearengana. Haren galdera eginda, hamar bat minutuz eduki zuten itxarongelan zain. Roberto Varaona alkate jaunaren despatxuan sartu zenean, dotore jantzitako gizona ikusi zuen, zutik, bera sartu zain. Haren atzean, Francoren erretratu handia ageri zen; albo batean, tente, bandera espainola.

–¿Qué tal estás, Jose Mari? Cuanto tiempo, sin verte! –izan ziren alkatearen lehen hitzak–. Disculpa que no te pueda hablar en vascuence, no he podido aprender lo suficiente.

Bostekoa eman zioten elkarri.

–He oído que has estado en Francia, que has pasado allí una temporada.

Jose Marik baietz, bi urte lehenago guardia zibilen kuartelean gertatutakoa azaldu zion eta beldurra hartu eta horregatik egin zuela ihes, baina ama larri zebilela, diru premiarekin, eta berriz itsasoan hastea erabaki eta horregatik etorri zela.

–Orain zu zera alkatea eta guardia zibilekin hitz egiten baldin badezu, bakean utziko naute, hori eskatzera etorri naiz zuregana.

Alkateak orduan diskurtsoa bota zion. Giroa aldrebesten hasita zegoela aspaldian, gazteak politikan sartzen hasita zeudela eta hortik ez zetorrela gauza onik. Jose Mari asalatu egin zen.

–Gerra da gauza onik ez dakarrena, zuri anaia eta niri aita kendu zigun gerra madarikatu hark; politika da behar deguna, politikaren bidez adostu beharko ditugu, ba, desberdinen arteko auziak!

Robertok ere ahotsa altxatu zuen:

–¡La guerra nos trajo paz, la paz que disfrutamos ahora, y que no podemos echar a perder!

–Ez, hau ez da bakea, askatasunik batere ez daukan herria ez dago bakean, egotekotan, geldirik dago, behartuta, zapalduta, baina ez bakean, eta askatasuna eman ezean, arrisku handia dago egun batean dena lehertzeko, eta berriro gerra etortzeko.

Hitz haien ondoren isiltasuna etorri zen, Anarriko arroka hartan Robertok bere anaiaren hilketarena kontatu ondoren bezala.

–Mira, Jose Mari, yo sé que tú has debido sufrir

mucho; no es fácil digerir que maten a tu padre, y mucho menos cuando, como es el caso del tuyo, estoy seguro, no ha hecho nada malo, pero deberías saber que todavía es más duro que te maten a un hijo. En la guerra los padres sufren más que los hijos. Y eso le sucedió a mi padre, que le mataron un hijo, y nosotros hemos tenido que sufrir las consecuencias de eso en casa; a mi padre el odio le invadió el corazón, sufrió mucho, e hizo sufrir... a nosotros en casa y a otros en el pueblo. El también fue alcalde del pueblo, afortunadamente por poco tiempo. Yo no quisiera actuar como él. Yo no quiero hacer política, aquí en el ayuntamiento tratamos temas del pueblo. Para eso acepté esta responsabilidad; para ayudar a los vecinos en la medida en que pueda.

Politika egin nahi ez zuen politiko haren hitzekin aspertzen hasita, Jose Marik, begiratuarekin, adierazi zion alkateari ez zegoela diskurtso gehiagotarako eta erantzuna nahi zuela, ea lagunduko zion guardia zibilek bakean utzi zezaten. Alkateak ulertu egin zion

–Mira, Jose Mari, ese de atrás mío, el del cuadro, está ya muy viejo, no le queda mucho, y cuando se vaya, ya vendrán las votaciones, se elegirán alcaldes y diputados. Mientras, es mejor que esperemos, no nos vayan a dinamitar el puente otra vez –azken hitzak ironiaz esan zituen, aurpegian irribarre erdia jarrita–. Ahora no tengo mucho tiempo, ando metido en la organización de la dichosa regata, va a venir mucha gente al pueblo, la televisión... vamos a dejar que pase la regata y de allí a unos días te llamaré, tenemos que hacer una cena tú, Luis el chico de Itxaspe que nos bajó hasta aquella roca de Anarri, ¿te acuerdas? y yo. Los tres. De mi cuenta, ya os avisaré.

Beste bosteko bat emanda esan zioten agur elkarri.

Egun gutxitan lagun askorekin egoteko aukera izan zuen. Iparraldean pasatutako bi urteen ondoren, orain beste mundu batean zegoela iruditzen zitzaion, bestelako batean. Hemen estropada beste konturik ez zegoen: arraunlari ingelesak Toki Alai ostatuan zeudela, jende asko etorriko zela, hura dena nola antolatuko zuten... Tokitan zeuden hemen egun gutxi batzuk lehenago arte han, beste aldean, entzun zituenak.

Igandea iritsi zen, estropada eguna. Eguerdi

partean plaza aldera joan zen. Han zela, jendea elizatik jaisten ikusi zuen, meza nagusian izandakoak. Udaletxean, alderik alde, piperpotoa ikusi zuen, balkoian jarrita. Hari begira zegoela, txaranga sartu zen plazan, haurrak atzetik segika zituela. Orduan bere onenean zebilen The Beatles talde ingelesaren kantua jotzen ari ziren, Yellow Submarine. Plazako jendea kantari entzun zuen: “submarino amarillo es... conocí un capitán que en su juventud vivió en el mar, submarino amarillo es...”, denak kantari.

Oriotarrak ingelesaren kantua espainolez kantatzen, herria dena kartekez bete: ‘Oxford - Orio, regata internacional, 25 de agosto de 1968’. Bihozkada izan zuen aurrerantzean zer egingo zuen, bazegoen zer egingo eta, bazeukan lana.

Buruan hori zuela, Marilena ikusi zuen okindegitik ateratzen, ogiz betetako poltsa handia zintzilik zera-mala. Aitzakia polita iruditu zitzaion poltsaren pisu astuna neskari laguntza ematera joateko.

–Egun on, Marilena, nik lagunduko dizut. Noraino zoaz? Eramango dizut poltsa. Zer moduz da Luis? esaiozu estropada ikustera etortzeko.

Bizikleta zeukan izkinaraino lagundu zion. Han, neska baserrira bidean abiatu aurretik, kostata baina halako batean bota zion:

–Hara, Marilena, arratsaldean, estropada bukatu eta gero, plazan musika izango da, bandak joko du, etorriko al zera baltsean egitera?

–Ez dakit, ez dakit ahal izango dedan.

Esateko moduan antzeman zion baietz, etorriko zela. Marilena bizikleta gainean aldendu zenean, berriro topatu zuen txaranga eta atzetik ‘submarino amarillo’ kantari zihoazen arraunzaleak. Oraingoan kantua ez zion horrenbestearainoko minik eman.

Ezagun batekin topo egin eta biak plazako taberna batean sartu ziren, Kolon Txikin. Basoerdi bana eskatuta, hantxe aritu ziren estropada kontuak astintzen. Gero, lagunak bestelakoak aipatu zizkion, herrian gau-eskola sortzekotan ziren, dagoeneko eginak zituzten bilera batzuk; hurrengora joateko proposamena ere egin zion. Horretan geratu zen. Gustura bazkaldu zuen etxean amarekin, arratsalde polita zetorren, gehiago Marilenarekin dantza egiteko aukerak zekarkion esperantzagatik haren aurretik ikusiko zuen ‘regata del siglo’ agatik baino.

Herrian jende asko zebilen, estropada ondo ikusteko garaiz ibili beharko zuen, toki egokia



hartzeko, lo-kuluxkari tarterik eman gabe Kolon Txikira abiatu zen berriz. Kafea hartuta, kalera atera eta moila aldera jo zuen. Dena tribunaz beteta zegoen, kofradiatik hasi eta zubiraino. Guardia zibilak ere ikusi zituen, haiek norbait zaintzera etorriak behar zuten. “Gaur hemen pajaro handiak izango dira”. Beste aldera jotzea erabaki zuen, errioren beste aldera. “Han lasaiago egongo nauk”. Ttipi-ttapa, zubia igaro eta beste aldeko ontziola zaharraren ondoan jarri zen, moilan eserita, herriko plaza aurrez aurre zuela. Moilan jarritako egurrezko tribunak ia jendez beteta zeuden. Eremita bat hutsik zegoen, justu bere aurrekoa, agintarientzat gordea. Guardia zibilen mugimendua sumatu zuen eta segituan jendea tribuna hartan sartzen, haien artean baziren militarrek ere, haien dominen distira antzeman zuen paparrean zintzilik. Gogora etorri zitzaion Donibaneko baserrian proposatu ziotena. “Polizia torturatzailerik hori ere hor egongo dek” pentsatu zuen.

Momentu batean denak nahasian etorri zitzaizkion gogora: aita, Roberto alkatearen anaia, kuartelean jaso zituenak, Iparraldeko egonaldia, han eskatu

zioten laguntza, bere ezetzagatik bertan behera geratu zen atentatua... Ondoren, Marilenaren aurpegi alai eta ponpoxoak iraganetik orainera ekarri zuen eta gogo goxarazi. Buruak lanean segitzen zuen eta Marilenaren ondotik gogoak etorkizunera jo zuen, laster arrantzale hasi beharko zuen, edo beharbada izango zuen bestelako zereginen bat lehorrean; goizean Kolon Txikin lagunak aipatutako gau-eskola sortzeko planak ere aldarte ona ekarri zion.

Horretan ari zela, ontzi motordun baten burrunbarak ekarri zuen berritako estropadara. Ordurako, arraun ontziak ere uretan zebiltzan, joan-etorrietan, arraunlarien giharrak lehiarako berotzen eta prestatzen. Haiei begira zegoela, ontzi bat urreratu zen lehorrean, bera zegoen lekutik 50 metrora. Handik bi gazte eskaileterara jaisten ikusi zituen. Bat-batean, arnasarik gabe geratu zen, bihotza geldituta bezala. Ez zen posible! Bi gazte haietako bat Joakin Mari zen, azkenekoz Iparraldeko baserrian ikusi zuen Ori-barzarreko mutil gaztea.

Estropada hasteko, artean ordu laurdena falta zen. Ordu laurdena.

# Orio, 789 kilometro Santiagora

*Jon Agirresarobe*

Orpo azpira jaitsi zaidala Igeldon jandako otarteko erdia, orain, eztarrira datorkit bueltan. Hau da aldatzarra autopista azpitik atera berritan, asfaltoa gainera. Herrira bidean dena aldapa behera dela esan didan baserritarraz gogoratu naiz. Tirantedun kamiseta zuria jantzita piperrei karakolen kontrako pozoia botatzen ari zen. Gustura ari zen, bota eta bota, norbere buruari usain oneko lurrina botatzen ari garenean bezala. Hizketan egon gara, hala moduz, eta argazkia atera dugu. “Bi hominido espezie ezberdin” titulua jarriko diot bildumako hamazazpigarren argazkiari. Baina ez dakit zer eman duen gure harremanak: gezurra esan dit edo ez diot ondo ulertu. Gorantz jarraitzen dut, gidaliburuan ez dator ezer eta laburra izango al da kalbarioa? Motxila arindu behar dut. Irungo baskulak ez dio kontrakorik: 11 kilo eta 700 gramo motxilak, 83 kilo eta 200 gramo eramaileak. Biok arindu behar dugu. Bi kamiseta eta ordenagailua alferrik ekarri ditut. Hominido honek orain artean jandako platanoen erdiak jatea aski luke kiloak galtzen hasteko.

Ermitan izango du amaiera gurutzebideak. Hau ere San Martin? Bideko ia herri guztietan dago izen bereko otoitz lekua. Erromes bakoitzari dator kio bere samartina, momentu batean uste izan dut nirea gaur zetorrela. Elegantea da, ermita eta atzeko bista. Hori bai, hemen ere paretak altxa dituzte hondartzaren aurrean. Ezjakinak agintean bazter guztietan. Egiari zor, bazter dotoreak dira. Dotoreak bezain gorabeheratsuak, Kontxako hondartzan topatu dugu ordeka apurra. Mendian esnetarako behiak gutxi, buru baka-rrak haragitakoak; animalientzat txabola ederrak eta jabeentzat etxe elegante askoak. Salgai daude etxe asko. Ez da seinale ona, aurrezki kutxa batek saltzen ditu aldapan behera berrienak. Hemen ere zakurrak oinutsik. Hara, neronek ere hobe botak kenduko banitu. Adokinean laban egiten dute gomazko botek. Galtzerdiak izerdituta ditut gainera. Aldatzeko badut eta gaitz erdi. “Erromesak ez du katarrorik harrapatu

behar, gelditzen zarenean kontuz hoztu gabe”. Hala dio esku artean daramadan gidaren bederatzigarren manamenduak. Gidari gomendioa borobiltzea falta zaio. Halako zer edo zer, askoz hobe: “Epel lo egin, bero jan eta garagardo hotza”. Sagardo eta ardo zuriak ez naute erabat konbentzitu. Momentuz, onena, errepide ondoko jatetxeetan igeltsero eta kamioilariak edaten duten urteko ardoa. Siestarako mundiala. Hala da bai, ez naute bidera motibo espiritual edo erlijiosoek ekarri. Ez naiz barruan gordeta dagoen horren bila etorri. Aterako da nahi duenean. Beharbada, atera da eta ez naiz konturatu. Ez naiz kirolari kronometro zalea, barrita energetikoek eztarria lehortzen didate. Tabernetako dekorazioa aztartzera eta bideko amona zaharrekin hitz egitera nator. Gazteren bat tokatzen bada ere saiatuko gara maila ematen. Ahal den neurrian, ingelesa ez baita Euskal Herrian kaleko hizkuntza.

Ez ingelesez, ezta euskaraz ere. Bidean gurutzatu dudana lehen herritarrak ez du hitz egiten. Zein ote da amona hau? Harrizko eginda oroituko dute. Euskaraz idatzita dago azalpena eta gogoarekin gelditu beharko dut. Maria Camino izango da, izena izango da lehen lerroan idatzia dagoena. Bidearekin zerikusirik izango al du? Turismo bulegoan galdetuko dut: Erromesen interpretazio zentroa dago bertan. Zer nahi duzue esatea, momentuan ez dut gogorik museoan sartzeko. Kafé bat edo haragi ura eskaini izan balidate, igual. Salda deitzen diote haragi urari, baina museoan ez da horrelakorik izaten. Euskaldunak ez dira konturatu tabernak direla museo onenak. Euskal Herrian behintzat, bai.

Gauetz ezin, ordea, euskal museoetan kateatu. Gaur ere logalez puskatzen nago. Goizeko seietan jaiki behar izan dugu, ostera. Europan goiz jaikitzen gara, baina oporretan ez dago zertan. Iluntzean goiztiarren aurka matxinatuko naiz albergian, oilarra baino lehen plastikozko poltsak ireki eta itxi hasten diren horiek oroituko dira zein den Daniel. Gaueko

bederatzitan zakuan sartuta izaten baitira Europa aldetik datozen jubilatuek. Aurrean doazen bi horiek esaterako. Metro batzuk hartuta doaz eta desagertu daitezela. Aukeran nahiago herria bakarrik gurutzatzea. Hori da erretolika, bien jardunarekin irratian ez litzateke kanturik jarri beharko eguneko programazioa osatzeko. Eliza ondotik joan dira, bizi-bizi. Ni mantsoago noa, hanka batek besteari ibiltzeko baimena eskatu behar balio bezala. Asko luzatu zen bart gaueko esperientzi kulturala. Arrastaka iritsi naiz eliza parera. Kapila berria egiten ari dira. Lanean bi gizon heldu eta gaztea begira. Belaunaldi berrien laburpen estanpa ezin hobea dela esango luke gure aitak. Ez zaio arrazoirik falta. Esaterako, atzo ezagutu nuen Julio, Bartzelonan bizi den argentinarra, nire adinekoa. Elkarrekin egin genuen Hondarribitik Pasaiera arteko bidea. Arkitektura ikasten jardundakoa, argazkilaritza ofizio hartu duena, noizbait gerra korrespontsala izan nahi du. Abentureroa baina gurasoen eskupekoak iraun arte bidera etorria.

Gezi horiak ezker-eskuin. Erromesentzat seinaleak daude elizaren alde banatara, nora joan behar dut? Bata ofiziala eta bestea taberna edo saltzaile baten interesekoa izango da. Noski, ofizialak ere izango du interesik bueltan. Ez dago motiborik gaizki pentsatzeko. Bide guztiek Santiagora eramango naute. Elizako langiletako batek ezkertera hartzeko esan dit, plaza bertan dela. Eta lanean ari direla eta ez digula eliza irekiko. Ezkertera hartu dut, bai. Guraso gazteak mojei umeak uzten ikusi ditut. Gure herrian ez da horrelakorik gertatzen. Ixkin egin eta marko dotorea. Bi harri kozkor lurretik ateratzen dira: Jurassic Park pelikulako eskenatokia ematen du baina Oteiza izeneko herriko artistari eskainitako plaza ei da. Hala jartzen du liburuak. Gizon lasaia izango zen Oteiza eskulturagilea, bere izaeraren neurrira egindako plaza eskaini badiote behintzat. Motxila lurrean utzi, bankuan eseri eta mendiko botak kendu ditut. Kamerak jarri dituzte eliz atarian baina ez naiz lotsatu. Graba nazatela, herrian diru gutxi uztea izango da nire bekatu handiena.

Azken metroak behera, eta festibala herrian, ostegun buru zurian. Merkatua tokatu. Batere ordenareik gabe jarrita daude zamoranoak, inguruko baserritarrak eta denetariko saltzaileak. Denetariko saltzaileak eta erosle orojakileak, itxura guztien

arabera. Ez da inor isiltzen. Saltxitxoi eta txorixo postuak zabaltzen du usaia. Zinturoi eta guardasola saltzaileak ematen dio kolorea. Soinua kulero eta galtzontzilo saltzaileak jartzen dio. Buelbaka ibili naiz. Santiagora naraman bidea atzo inauguratu dutela ematen du, behiak trenari bezala begira gelditu zaizkit herritar mordoxka. Hizkuntzarekin arazo larria daukate herri honetan, mutil gazte europarra ikusi eta gaztelaniaz buila bizi-bizian hasi zaizkit guztiak, gauzak ozenago esanda ulertu ezina konponduko balitz bezala. Lau sagar erosi ditut, eta ordu erdi entretenitua pasa. Horretarako ez da bertako hizkuntza jakin behar. Tabernan eskatu dut tortilla patata, behatza gainean jarrita. Osoa eskatu nahi izan diot eta laurden bat atera dit. Komunera buelta egiteko aitzakian zerbait hartu behar, komun publikorik ez baitut topatu herriko plazan. Herriko adineko gizonak pixa moilako eskaileratan egiten dutela konturatu naiz. Ni ez naiz atrebitu.

Bizi-bizi zubira egin dut salto, Zarautza iristea baita gaurko helburua. Eurria hasi du. Gizajoak, arraunean ari dira neska eta mutil koxkorak, bina ontzitan. Hogeita bat gizaldi pasa dira eta oraindik ere bada kirol minorizatueta dabilenik. Herri honetan ere futboleak arituko dira ia denak, baina bakarren batzuk arrauna maite dute eta euritan ere hor dabilta ibaian gora eta behera. Zubi erditik lortu dut herriaren panoramika zabalena. Ehunka bandera hori aterako dira nire argazkian. Zurituak daude asko, ez dituzte beraz bi egunetarako jarri. Ez naiz galdezka hasiko zergatik den bandera horiena, eta euritan gidaliburua zabaldua egoterik ez dago. Galdezka hastekotan Santiagora nondik jarraitu behar dudan galdetuko diot aurrean dudan gizonari. Saiatu behar dut. Damutu naiz. Ezkertera hartzeko esan dit, kilometro bakarra falta zaidala Santiagora iristeko. Nola? Eskuarekin gogoratu dit Santiago bertan dudala, bost minutura. Adarra jotzen ari zait. Beste bat.

Orio bezain abegikorak izango al dira nirekin Deba, Markina, Gernika edo Bilbo. Nola ezetz? Herri honek egun oso bat bertan pasatzeko adina demostrazio egin du ordu erdian. Bertan pasako dut arratsaldea eta gaua. Atzera joango naiz, aldapan gora. Izen ona du Orioko albergeak, ea oherik libre baden Rosaren albergean.

# *(H)Aginako festak*

*Jon Agirresarobe*

1)

Ez du itxura onik  
hemen datorrenak  
belarri azpian min...  
ez dira flemak.

Hagin bateko minak  
dakarzkiz problemak,  
beldur asko ematen  
dit dentistarenak.

Jarri dira pelmak  
gure etxeko denak,  
eta amaren lemak  
zabaldu direnak:  
“ez du dena konpontzen  
espidifenak”.

2)

Lasaigarri ta guzti  
itxarongelara:  
ordu erdi lehenago  
pastilla traga.  
Musika klasikoa  
Cuore, Karkara:  
lagungarri behar dute  
baina dena traba.  
Hegaluze sarda  
sentitzen naiz hara,  
eta almadraba  
gainean dut jada.  
Erizainak esan dit:  
“zure txanda da”

3)

Jakin hona etorri  
garela deskartez;  
beldurtiak, utziak  
gara izatez.  
“Lasaitzeko jarriko  
dizut Mikel Markez”  
saiatzeak zentzurik  
ba al du gaur? Batez!  
Bata eta latex,  
animoen partez,  
esan zuten artez  
denek aho batez:  
orratzak erakutsiz  
“lasaitu zaitetz”.

4)

Hogeitasei distala  
ondokoa aske,  
“aguantatzen egona  
zara bi aste.  
Garbitu ohi duzunez  
ahoa desastre,  
hortzartean lanpernak  
ikusi nitzake.  
Nerbio desgaste  
hortik has gaitetzke,  
gero sei enpaste,  
iragana lastre  
oraingo hontan ohitu  
behar dek gazte”.

5)

Ahoko burruna hau  
ez nuen espero:  
mingain bueltak ematen  
du Sarajevo.  
Lija, golpe ta soinu  
alanbre, mortero...  
dentistak bilakatu  
dira igeltsero:  
esmerilla bero,  
aspiratuz edo,  
enkofratu gero  
zulo ta alero.  
Ahoa garbituko  
dut egunero!

6)

“Hi haiz aho handia”  
hainbatek diosta  
dentistak ez du uste  
(e)ta badu mostra:  
ahoa irekitzen  
izugarri kosta,  
“utzi mingaina hilda”  
ondotik dioska.  
Lana ozta-ozta,  
orduak mordoxka,  
mingainari horzka  
egin diot ostra!  
Nekez kentzen da urtetan  
egin den kostra.

7)

Urrian hasieran  
haginak molesta,  
zertan nabil arazo  
honi iheska.  
Sabinengana joan naiz  
txantxarrez gainezka,  
sendatu eta jasan  
du nire protesta.  
Joan zaizkit kezka,  
eta paga estra,  
San Praxkurik ezta  
agertu galdezka...  
Etxean izan dugu  
(h)aginako festa.

# *Oria erreka/ibaia/errioaren bidaia*

*Iñaki Iturain*

Aizkorri mendi iparraldeko  
isurian goitik behera  
abiatu da errekatxo bat  
nondik ote da atera?  
hegoaldeko urak joan arren  
beste itsaso batera  
hauek pixkana jaitsiko dira  
Kantauri itsaso aldera  
eta han batu mundu guztiko  
beste urekin batera.

Zegama eta Segura pasa  
Goierri bete-betean  
Beasainen CAF eta trenari  
agur, fabrika artean  
Amezketarra, Lazkao Txiki  
historiaren tartean  
Ordizi eta Txindoki utzita  
Beterrirako atean  
zabaltzen doa sakontzen doa  
Goierri utzi ostein.

Goierri utzi Beterrin sartu  
inauterien herrian  
hi bai, ibaia, hi bai egon haiz  
egoera tamalgarrian:  
kutsaduraren atzaparretan  
arrainak itolarrian  
azala aparrez, pozoia nonahi  
ibaiaren ekarrarian  
eta arrainak ta hegaztiak  
amesten udaberrian.

Donostiara joan beharrean  
ezkerrera sigi-saga  
Lasarte eta Usurbil pasaz  
hortxe dator Aginaga  
inguru hortan aldatzen zaigu  
ibai izaera laga  
hemen bukatu da ibaiaren  
beti beherako bolada  
gora ta behera jaio da orain  
errioaren balada.

Aginagako gazi-gezatan  
angula da nagusia  
txitxardin beltza ere deitzen da  
itxura du itsusia:  
txikia, fina, irristakorra  
ia ezin ikusia  
bere txikian aberasten du  
betetzen duna untzia  
Gabonetako loteria da  
angularen igurtzia.

Bide luzea egin ondoren  
Aizkorritik Kantaurira  
ibaia orain horiz heldu da  
mirotzaren aberrira  
gerran eraitsi zubia igaroz  
arrantzaleen herrira  
plazan han daude marinel zaharrak  
errioari begira  
kontu kontari patxada osoz  
eguzkitik eguzkira.

Arrantzaleak, arraunlariak  
itsas ondoko herrian  
itsasontziak, arraun-ontziak  
horiaren aberrian  
Aia, Orio elkartzen dira  
errioren erdian  
balea haren oroitzapenak  
bertso zaharren orrian  
kantu-kantari, kontu-kontari  
harrotasuna irrian.

Aiarrak eta oriotarrak  
zubiak elkartzekotan,  
arrantza-gune, arraun-eremu  
igerileku, askotan,  
kresala, gatza eta bizia  
ditugu ur-bide hontan  
errioa da gure arima  
garbi dago bertso-sortan  
azaldu dugu errioren  
curriculum bertsoan.

Aizkorrin hasi den historia  
jarraitua itsasoan  
etengabeko mugimenduan  
jario goxo-goxoan  
orain bertsotan adierazia  
jakin dezaten auzoan  
Oriak iraun dezan denboran  
ondorengo mintzoan  
urtez urte ta menderik mende  
giza historia osoan.

Itsasoan da ibaiko ura  
lehorretik urrunduta  
ADeNean du jatorria  
bidea ez du ahaztuta  
orain badoa behetik gora  
itsas ura lurrunduta  
gero euria goitik behera  
zikloa burutu du-ta  
tanta horia Aizkorrin dago  
zeru-lurrak elkartuta.

Bertso berriak orain jarriak buruz ondo ikasteko  
erreka, ibai, errioren gorabeherak jakiteko  
ondo kantatuz sentimenduak bihotzean gordetzeko  
azken balea, itotakoak... saminez gogoratzeko  
kanpotarrari, nahi duenari, zer garen erakusteko.

# *Indonesiara bidaia*

*Jokin Zumeta*

Arkatza hartu, punta atera  
aurrean jarri A4 papera,  
ausartuko naiz aurtengo urteko  
bidaia bat kontatzera. (bis)  
Hortxe martxoan aldera,  
15ean, gainera,  
uste det zala ilbera,  
gustora asko joanak ginen  
Indonesia aldera,  
urtero ez du batek izaten  
hara joateko aukera.

Hegazkinean sartuz batera  
luxua dator begi aurrera:  
sofa ederrak, LED telebista  
ta etzateko aukera, (bis)  
joanaz pixkat atzera,  
tokatzen zaigun aldera,  
nibela dijoa behera,  
gogoan daukat nere barrutik  
pasa zitzaidan galdera:  
tente joan behar ote degu guk,  
sagardotegiko antzera?

Hiru hegazkin bidai batean  
egun oso bat zeru aldean,  
denbora genun gauza bakarra  
pasatzen ez zana airean. (bis)  
Eta, halako batean,  
Yakartara iristean,  
merkurioa topean,  
berrogei gradu ta hezetasuna  
kristona zegon kalean,  
labeko oilasko sentitu nintzan  
hegazkinetik jaistean.

Kalean gora, kalean behera,  
kotxe ta moto bertan topera,  
bat aurreratu, bestea pasa  
eskubi ta ezkerrera, (bis)  
kamikazeen antzera,  
pultsazioak lehertzera,  
zer ikusteko jaio gera,  
sarri ikusiak moto batean  
bost lagun joaten aurrera,  
gu bost plazako kotxe batean  
bakarrik ibiltzen gera.

Erosi genun nikik, jertsea,  
iratzargailu eta eltzea,  
sobrakoakin joaten ginan  
bazkaltzera, afaltzera, (bis)  
hotela ere sartzea  
dena eskuz pagatzea,  
hala ere, sobratzea...  
diruarekin kalera atera  
eta diruaz etxea,  
ahaztua neukan zer zan etxera  
diruakin bueltatzea.

Han zer ikusi bada aukera,  
paisaia ederra begi aurrera,  
arroz sorotan ibili ginan  
aurrera eta atzera, (bis)  
gero sumendi batera  
ur jauzik ere topera,  
itsas ertza ez ahaztera,  
mendi batera azufrearen  
mina gogorra ikustera,  
begiak guztiz bete ditugu  
asko hustu gabe kartera.



Gili ta Lombok, Bali, Yakarta...  
turismoantzat nor beran karta  
lau irla horietan hilabetean  
jarri genun gure hanka. (bis)  
Yakarta hiriburu da ta  
Balik du surfaren marka,  
Gili paradisu aparta...  
zein baino zein ederragoak  
bat ezin dugu aparta,  
sarri burua joan ohi zait  
Indonesiara bueltaka.

Hilabetean handik barrena  
ta bueltatzeak nahiz eman pena,  
gustora joango nintzake berriz  
Indonesiara hurrena. (bis)  
Eta badaukat kemena  
gordez zure oroimena,  
jaso eskerrik beroena  
eta oporrak bezela heldu da  
bertso sortaren azkena,  
nere arkatzak eman du-eta  
emateko zuen dena.

# Noiz arte

*Alazne Arruti*

Oria ibaiak  
hazten ikusi gaituela diote kantuek.  
Denetarik eraman du beregan,  
izerdiz bustitako zurezko ontzietatik  
Tolosako aparrak  
ezabatu ezin izan zituen irribarretaraino.

Baina ez duguna desiratzen erakutsi digute,  
dugun oro suntsitzeko gai izan arte.

Udako egun sargorietan  
moilatik behera egiten genuen salto,  
elkarri bultzaka  
itsasontzietan barrena nabigatzen,  
inolako beldurrik gabe.

Baina bidaia guztiak  
ez dira horren errazak.

Itsasoak irentsi nahi ez duen oro itzultzen digu  
bueltan:  
kaio batek irentsitako zaborrekin batera  
Antillako hondar galduetan noiz edo noiz  
paratu izan diren marrazoak lez,  
gugana datoz kamerek grabatutako gorpu  
bortxatuak.

Baina gupida  
gertukoen bizia jokoan dagoenean piztu ohi zaigu.

Olatuen eztanda  
oihu bat da barrako harri berri bakoitzean.  
Ez ditu desagerrarazi nahi bere baitako  
naufagoak.  
Mundua handia baita eta  
ez baitaki zein etxetan babestu nahi izango  
dituzten.

Baina solidaritatea  
galtzeko arriskuan dago.

Ikusi nahi ez dugunari beldurrez begiratzen diogu  
Itxaspeko talaiatik.  
Ekialde Hurbila urrunegi dago guretzat.  
Afrika ere desagerrarazi egiten dugu  
Frantzia sutan ez denean.

Baina hesiek tente jarraitzen dute  
egunero bonbardatutako lurraldeetan.

Heriotzak,  
errugabetasunak,  
ez dute kolorerik,  
ez hiritartasunik.  
Biziak ezin dira prezioaren arabera sailkatu.

Baina auzo-lotsa  
norberari sortzen zaion gauza da.

Oria ibaiak  
hazten ikusi gaituela diote kantuek.  
Berant heldutakoek ere berdin hartuko ditu  
bere abaroan.  
Guk ere berdin egin dezagun.

# *Alai eta lasai*

*Marisa Arruabarrena*

Garai batean  
laino artean  
ezkutatu nintzen  
ekaitzetik ihesi.

Baina  
zure filarmonikaren DoReMiak  
udako arratsalde beroan geundela  
biok  
gogorarazi zidan.

Egun  
udazken koloreak  
hozkiarekin jolasean daude.

Ni, aldiz,  
hemen  
zure ondoan,  
alai eta lasai.



**Euskaraz**  
bizi-bizi

